


Sarrera | urteko plana · 2019-2020

Urteko Plan honek planifikaziorako lanabes erraza eta bizia izatea du helburu. Bertan Berritzegune hauetako kide guztien jarduerak eta bi zentroetako zerbitzu eta aholkularitza ezberdinetatik planteatzen diren ekintza zehatzen helburuak (bai Saileko lehentasunezko lerroetatik ateratakoak bai talde desberdinetatik hobekuntza planeko proposamenetatik planifikatutakoak) islatzen dira. Gasteizko Berritzegune biak espazio berdinean kokatuak daudenez eta aurreko urteetako esperientzia positiboa kontuan hartuz, bi zentroen funtzionamendua guztiz koordinatua izateko asmoa dugu, azpiegiturak eta oinarriko zerbitzuak partekatuz. Hori dela eta, egokitzen jotzen dugu bi zentroen errealitatea orain aurkezten dugun Urteko Plana **dokumentu bakarrean** jasotzea. Honela, eta helburu hirukoitza gidaritzapean, hau da, iraunkortasunarekiko gure begirunea adieraztea, sare_hezkuntza filosofia iradokitzen dituen planteamenduei egokitzea eta tresna baliagarria eta uneoro gaurkotua egoteko grina, **plana on-line** aurkezten dugu, lurraldeko edozein guneetako ikastetxe guztietatik erraz sartzeko modukoa, eta, jakina, hezkuntza administrazioaren esparru desberdinen eskura.

Urteko planifikazio honen inspirazio **iturriak** era askotarikoak dira, laguntza zerbitzuak arautzen dituzten xedapen legetatik hasita, Hezkuntza Sailatik dokumento ezberdinetan jasotako xede eta lehentasunak ([Hezkuntza Saileko Hobekuntza Plana](#), Ikasturtea antolatzeo Sailburuordearen ebazpena, Berritzeguneei zuzendutako orientabideak...), ahaztu gabe zonaldeko formakuntza beharrak, erreferentziatzko aholkulariek zuzenean jasotakoak edo formakuntza eta berrikuntza proiektuen bidez irakasleriak zein ikastetxeek zuzenean aurkeztutakoak. Halaber, kontuan hartzen dira Hezkuntza Administrazioiko esparru desberdinetatik antzemandako beharrak eta aurreko ikasturteko memorian jasotako gogoetak.



Aipatutako jarraipideak aztertu ondoren, urteko planean txertatzeko lehentasunak definitzen dira ondorengo dokumentu honetan [MD1202 urteko plana lehentasunak.pdf](#)

Bestalde, aipatu esku-hartzeak, formakuntza ekintzak eta dokumentu honetan zehazten diren beste jarduerak, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak [Berritzeguneentzako Orientabideak eta lan ildoak](#) dokumentuan zehazten diren lehentasunezko esparruen arabera sailkatuak agertzen direla:

1. Hezkuntza komunitatearen prestakuntza | *Formación de la comunidad educadora.*
2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta | *Educación inclusiva y atención a la diversidad.*
3. Elebitasuna hezkuntza eleanitza baten baitan | *Bilingüismo en el marco de una educación plurilingüe.*
4. Material didaktikoen sortze- eta kudeatze-lana, eta hezkuntza eta ikaskuntza arloetan ikt-en integrazioa | *Elaboración y gestión de los materiales didácticos e integración de las tic en los procesos de enseñanza y aprendizaje.*
5. Ebaluazioa eta ikerketa | *Evaluación e investigación.*
6. Herri ikastetxeen autonomian sakontzea | *Profundización en la autonomía de los centros públicos.*

Orientabide hauetan **hobekuntzarako helburu batzuk** proposatzearen beharra planteatzen da. Honi buruz aipatzen dugu badirela ikasturte batzuk «[arabaPrest](#)» **aholkularitza markoaren** garapenean ardatzen ditugula gure hobekuntzak, non aurreikusten dira gida moduko batzuk aholkularitza ezberdinentzat, ekintza amankomun eta koordinatua zihurtatzen dutenak, eta era berdinean ikastetxeei helarazitako mezu bakarra izatea. Halaber, marko hau ikastetxeek beraien formakuntzako ibilbidea definitzeko baliogarria izan daiteke, eta era horretan formaziorako egitasmoak azaltzeko tresna baliogarria izatea.

Beraz, ikasturte honetan zehar gure urteko planak hobekuntza helburuak aurreikusiko ditu, egindako moduluen inplementazioan eta errebisioan, eta beste berri batzuen diseñuan eta elaborazioan fokua jarriko duena.

Izan ere, gure eguneroko praxiarekin erlazionatuta dauden aspektu batzuen sistematizazioan eta adostasunean sakontzea da asmoa. Aurreko ikasturteetan azaldu dugun eran, bistakoa da Berritzeguneek, ikastetxeak bezala, ikaste-irakaste prozesuekin lotura duten zerbitzuak eskeintzen dutela, eta ikastetxeetan gertatzen den moduan, beharrezkoa dute formakuntza eta aholkularitza ekintzen (zer, nola eta zertarako aholkatu eta ebaluatu) planifikazioa sistematikoki jasotzen duten tresnak, zehaztapen maila desberdinekin. Horretarako PAM berriak diseinatuko dira, orain arte heldu gabeko gaiak garatuko dituztenak, helburuak eta garatu beharreko edukiak ezarri; sekuentzia didaktikoa, metodologia eta formakuntzaren modalitatea, erabili beharreko errekurtsoak, ikasgelako praktika, e.a.

Noski, ez dugu ahaztuko dagoeneko egina dauden moduluen errebisio eta ebaluaketarekin, aholkularitzaren markoan planteatutako esku-hartze eredian ezarritako irizpideen egokitasuna egiaztatuz lan taldetan.

Bestalde, hpb-etako aholkularitzen eta erreferentziatzeko aholkularitzen arteko koordinazio protokoloa sistematikoki bultzatzen jarraitzeko asmoa dugu, non ikastetxeko “bidai-orria” aztertuko da, bertako eskaerei era koordinatuan erantzuna eman ahal izateko.

Berritzeguneetatik ezinezkoa denez ikastetxeetatik jasotako eskaera guztiei erantzutea, Batzorde Pedagogikoak bere garaian erabaki zuen Formakuntza-Berrikuntza Proiektuen bidez “eginiko” eskaerak edo Hezkuntza Sailak bultzatutako programa/proiektuak lehenestea, hori bai, Hezkuntza Berrikuntza Zuzendaritzatik helarazten dizkiguten jarraibideak kontuan hartuta. Oinarri orokor honetatik abiatuz, beste irizpide zehatzago batzuk ezarri dira:

Lehentasunez *esku-hartze esanguratsuak*¹ burutuko dira BerritzePrest eskatu duten ikastetxeetan edo Hezkuntza Sailak onarturiko proiektuetan edo bultzatutako esperientzietan parte hartuz, eskusiboki Berritzeguneetako aholkularitza sistematikoa eskatu duten ikastetxeetan. Esparru honen barruan lehentasun berezia izango dute Hezkuntza Sailak lehenesten dituen ildoak heldien dietenak eta «arabaPrest» jasota daudenak, baita ere beste laguntza mota jositzerik eta beraien proiektuak garatzeko formaziorako beste biderik ez duten ikastetxeei (ekonomikoa zein pertsonala) aholkularitza eskaini.

- Irizpide orokor bezala, ez dira lehentasunezko zat hartuko Hezkuntza Sailak bultzatzen dituen ildo nagusiekin **lotura zuzenik** ez duten aholkularitza eskaerak.
- Kontuan hartuko den beste alderdi bat irakasleria partaidearen kopurua edo portzentaia izango da, 1,5 edo 2 orduko lanaldi eraginkorra bideratzea eta formakuntza eta aholkularitzak izango duen eragina ikastetxean oro har, aholkatze aspektuen gauzatzea ulertuta.
- Azkenik, Berritzeguneen ekintzak ikastetxe gehienei erantzutera zuzenduta egongo dira, betiere kalitatezko aholkularitza bermatuta dagoenean.

Lehentasuna izango dute BerritzePrest, edo Formakuntza / Berrikuntza Proiektu baten jasotako eskaerak eta/edo Hezkuntza Sailak bultzatutako programa/proiektu baten parte hartzen duten ikastetxeek...

¹ ME2106 metodoaren arabera, *eskuhartze esanguratsuak* bezala hartuko dira, orokorrean, ikastetxean bertan laneko gutxienez 3 saio / 5 ordu suposatzen duten eskuhartzeak (ez informazioa, jarraipena edo erreferentzia), aurreplanifikazioa dute non hasiera, amaiera eta helburuak jasotzen dira. Irailetik maiatzera burutuko dira eta amaitzean partaideen ebaluazioa jasoko da.